



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko irailaren 26a

108. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-25/MOC-00115. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita moratoria bat deklaratu dezan biometanizazio- edo biogas-plantak instalatzeko. Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztu du (3. or.).
- 11-25/MOC-00116. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kontratazio publikoko prozesuak alda ditzan. Miguel Garrido Sola jaunak aurkeztu du (4. or.).
- 11-25/MOC-00117. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Foruaren Hobekuntzaren aldaketa bultzatu dezan, forudun izaera kentzeko. Miguel Garrido Sola jaunak aurkeztu du (5. or.).
- 11-25/MOC-00118. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen aldaketa bultzatu dezan. Miguel Garrido Sola jaunak aurkeztu du (6. or.).
- 11-25/MOC-00119. Mozioa, zeinaren bidez Lurralde Kohesiorako kontseilaria premiatzen baita izapideak hasi ditzan Belateko tunela bikoizteko obra-kontratuaren kaltegarritasuna deklaratzeko, eta Etxebizitzako kontseilaria premiatzen baita izapideak hasi ditzan Erripagañako BF1.1 azpilurzatian babes ofizialeko alokairurako 46 etxebizitza eraikitzeko obra-kontratuaren kaltegarritasuna deklaratzeko. Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztu du (8. or.).
- 11-25/MOC-00120. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen baita lehenbailehen hasi dezan Queiles ibarreko udalentzat Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu berri baten obra. EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute (9. or.).
- 11-25/MOC-00103. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita berehala eta zorrotz bete dezan Emakumeen eta gizonen arteko ordezkari-tza parekideari eta presentzia orekatuari buruzko abuztuaren 1eko 2/2024 Lege Organikoaren azken xedapenetako seigarrena. Mozioa erretiratzea (10. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-25/PES-00329. Galdera, Nafarroako lurralde historikoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen izendapen ofizialei buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (11. or.).

- 11-25/PES-00330. Galdera, Building and Architecture Institute programako ikasleentzako bekei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (12. or.).
- 11-25/PES-00331. Galdera, Building and Architecture Institute-k irakatsi beharreko titulu berekiari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (12. or.).
- 11-25/PES-00332. Galdera, Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019-2030 Plan Zuzentzailea berrikusteari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (13. or.).
- 11-25/PES-00333. Galdera, Klima-aldaketaren Nafarroako Herritarren Batzarrean parte hartzeagatiko konpentsazio ekonomikoari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (13. or.).
- 11-25/PES-00334. Galdera, Acciona enpresaren eta Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (14. or.).
- 11-25/PES-00335. Galdera, Alkozko zentroko adingabeei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (15. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 11-25/ACOP-00018. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, Castejonen dagoen Palestinarekiko elkartasunezko horma-irudia bandalizatzeari buruzkoa (16. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/MOC-00115. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita moratoria bat deklaratu dezan biometanizazio- edo biogas-plantak instalatzeko

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita moratoria bat deklaratu dezan biometanizazio- edo biogas-plantak instalatzeko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Eskatzen dugu Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean egin dadila mozio hau betetzeari buruzko jarraipena.

Zioen azalpena

Trantsizio energetikoa eta ekonomiaren deskarbonizazioa ezinbesteko helburuak dira klima-aldaketaren aurkako borrokaren testuinguruan. Prozesu horretan, energia berriztagarriek funtsezko zeregina dute, eta, horien artean, biogasa eta biometanoa ekonomia zirkularrean, hondakinen kudeaketan eta berotegi-efektuko gasen emi-

sioen murrizketan laguntzeko potentziala duten teknologia gisa identifikatuak izan dira.

Abeltzaintzatik, nekazaritazatik, elikagai-industriatik eta hiri-hondakinetatik datozen hondakin organikoaren balorizazioak aukera ukaezinak eskaintzen ditu: atmosferara metanoa isurtzea saihestea, erabileran termikoetan edo garraioan aprobetxatzen ahal den energia berriztagarria sortzea eta nekazaritzan erabiltzen ahal diren ongarriak sortzea. Baldintza jakin batzuetan, instalazio horiek energia-eredu jasangarriago baterako trantsizio-tresna izaten ahal dira.

Alabaina, adierazi behar da potentzial horrek kontraesanak eta arriskuak ere badituela. Biogas- eta biometano-instalazioen hedapena, askotan, trantsizio energetikoaren logika neoliberal batean kokatzen da, non eskala handiko industria-proiektuetan jartzen baita ahalegina, funts publikoekin finantzatuta eta korporazio handiek mozkinak lortzera bideratuta daudenetan, mugarik gabeko hazkunde ekonomikoaren eredu zalantzan jarri gabe. Ikuspegi horretatik, teknologia "adabaki berde" huts bihurtzeko arriskua dago; abeltzaintza industriaren eta hain inpaktu handiak dituzten beste sektore batzuen ingurumen- eta gizarte-kanporatzeak makillatuko dituen adabaki, hain zuzen ere.

Instalazio horien eta abeltzaintza intentsiboaren ereduaren arteko lotura bereziki kezagarria da. Azienda murriztea eta sistema agroekologiko jasangarrietarantz aldatzea sustatu beharrean, biogas-proiektuak ugartzea pizgarri izaten ahal da makroetxaldeak irekitzeko eta handitzeko. Horrek guztiak, urak eta lurzoruak nitratoz eta amoniakoz kutsatzeko arazoak biderkatzeaz gain, hegoalde globaletik pentsuak masiboki inportatzea beharrezkoa duen ekoizpen-eredua betikitzen du, eta gizarte- eta ingurumen-inpaktuak eragiten ditugure mugetatik kanpo.

Gainera, instalazio horien klima-balantzeak azterketa errealista eta osoa eskatzen du. Metanoa atzitzen badute ere, beren prozesuek ere energia-kontsumoak eta garraioaren eta industria-funtzionamenduaren beraren ondoriozko emisioak badakartzate. Ihesak kontrolatzeko sistema zorrotzik gabe, klima-efektu garbia negatiboa ere izaten ahal da; izan ere, metanoaren berotze globalako potentziala 87 aldiz handiagoa da CO₂-arena baino 20 urteko etorkizuneko epean.

Nafarroan, proiektatutako instalazioek kezka handia piztu dute gizartean instalazioak eta biztanleguneak oso gertu egonen lirakeelako, usain txarrak egoten ahal direlako, lurzoruak eta akuiferoak kutsatzeko arriskua dagoelako, ur-kontsumo handia izanen dutelako eta eragin nabarmena izanen dutelako paisaian.

Ikuspegi ekonomikotik, enplegu-iturri eta zergekin lotutako diru-iturri gisa aurkeztu ohi dira biogas-proiektuak. Alabaina, zuzeneko lanpostuen sorrera mugatua izaten da, eta, ez bada mekanismo argirik ezartzen, mozkinak enpresa sustatzaileetan kontzentratzeko arriskua egoten da, zerbitzu publikoetan edo tokiko komunitateen ongizatean benetako hobekuntzarik eragin gabe.

Laburbilduz, biogas- eta biometano-instalazioek eginkizun garrantzitsua izaten ahal dute trantsizio energetikoan, baina haien garapena ingurumen-jasangarritasunaren, justizia sozialaren eta lurralde-orekaren irizpideek baldintzatuta egin behar da. Hori izanen da modu bakarra ziurtatzeko azpiegitura horiek ez direla bihurtzen eredu

ekonomiko jasanezin bati eusteko koartada, eta horrela bermatuko da benetan lagunduko dutela trantsizio justu, ekologiko eta demokratiko bat lortzen.

Gaur egun, dauden ziurgabetasunak egonik, ezinbestekoa da legedi bat sortzea, instalazio horien hedapen ordenatua eta jasangarria arautuko eta planifikatuko duena. Gizarte zibilak eskatzen du egin dadila Nafarroako lurren eta uren egungo kutsadura-egoeraren mapa bat. Garatzeko dago lurzoruaren kudeaketari buruzko erregelamendua, Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko Foru Legearen 56. artikulua 2. puntuan ezarritakoaren arabera. Eta Nafarroako Gobernuaren Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua simaur eta digestatoen kudeaketa arautzeko foru dekretu bat prestatzen ari da uneotan. Beraz, zentzuzkoa iruditzen zaigu biometanizazio-instalazio horien hedapena geldiaraztea hedapen ordenatu eta jasangarri hori bermatuko duen arau-ekosistema egokia izan arte.

Erabaki-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen du luzamendu bat deklaratu dezan gure lurraldean biometanizazio- edo biogas-plantak instalatzeari dagokionez, instalazio horien hedapen ordenatua eta jasangarria bermatuko duen arau-ekosistema egokia izan arte.

Iruñean, 2025eko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-25/MOC-00116. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kontratazio publikoko prozesuak alda ditzan

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kontratazio publikoko prozesuak alda ditzan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Miguel Garrido Sola jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen

denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Eskatzen dugu mozio hau betetzeari buruzko jarraipena Nafarroako Parlamentuko Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean egin dadila.

Zioen azalpena

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea inflexio-puntua izan zen kontratazio publikoaren arloko eskakizunetan, bai gardentasunari dagokionez, bai kudeaketa-eskakizunari dagokionez. Lege horri esker, prozeduren digitalizazioarekin batera, aurrerapauso handia eman da prozesuen informazioaren trazabilitateari dagokionez, eta horrek ahalbidetu du prozesuen kontrola eta auditoretza modu integral eta gardenean egin ahal izatea. Hain zuzen ere, horixe ari gara egiaztatzen Accionari eta Servinabari egindako esleipenei berriki egiten ari garen auditoretza tekniko eta instituzionaletan eta Nafarroako Gobernuak Parlamentu honetako lkerketa Batzordeari bidali dion informazio zabalean.

Hain juxtu, egindako kontratazio-prozesuei buruzko ezagutza-maila horrek ematen digu gure ustez nahitaez landu beharrekoak diren hobekuntza-elementuak hautemateko modua. Kontuen Ganberak, 2023ko urteko kontuei buruz emandako txostenean, honako hau dio “Belateko tunelaren bikoizketa” obra-kontratuari buruzko 4.4 puntuan: “Araudiak ez du zehazten zer prozedura jarraitu behar duten kontratazio-mahaiek eskaintza teknikoak baloratzeko, baina ganbera honek uste du proze-

dura bat ezarri behar dela, non parte-hartzaile guztiek informazio bera izanzen duten puntuazioen inpartzialtasuna bermatzeko, eta, beraz, tratu- eta gardentasun-berdintasunaren printzipioak bermatzeko”.

Kontuen Ganberaren iritzia ezagututa, alegia, kontratazio-mahaiek jarraitu beharreko prozeduran xehetasun falta bat hauteman duela, honako erabaki-proposamen hau egiten dugu:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hurrengo 9 hilabeteetan kontratazio publikoko prozesuak aldatu ditzan eta erregelamendu bidez arautu ditzan, kudeaketa digitalaren bidez bermatze aldera balorazio kualitatiboak egiten direla proposamena adjudikaziodun suertatzen ahal den enpresarekin edo eskaintza horren gainarako balorazio-elementuekin lotzeko inolako aukerarik gabe, eta, horrela, balorazioan joera jakinak sortzea eragozteko.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du datozen 9 hilabeteetan kontratazio publikoko prozesuak aldatu ditzan eta erregelamendu bidez arautu ditzan, kudeaketa digitalaren bidez bermatze aldera kontratazio-mahaiko kide bati baino gehiagori dagozkien balorazio kualitatiboak ez direla partekatuko eta ez direla eskuragarriak izanen beste ezein kiderentzat, harik eta balorazio horietako bakoitza digitalalki erregistratuta egon arte.

Iruñean, 2025eko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Miguel Garrido Sola

11-25/MOC-00117. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Foruaren Hobekuntzaren aldaketa bultza dezan, forudun izaera kentzeko

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Foruaren Hobekuntzaren aldaketa bultza dezan, forudun izaera kentzeko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Miguel Garrido Sola jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Eskatzen dugu mozio hau betetzeari buruzko jarraipena Nafarroako Parlamentuko Lehendakari-tza eta Berdintasuneko Batzordean egin dadila.

Zioen azalpena

Legearen aurreko berdintasun-printzipioa zuzenbide-estatuaren funtsezko zutabeetako bat da, bai eta funtsezko berme bat ere demokrazia aurreratu batean. Hala ere, Espainiako ordenamendu juridikoan –Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan ere– indarrean dagoen forupetze-araubidean salbuespen bat jasotzen da printzipio horri dagokionez, tratu judizial berezia ematen baitie kargudun publiko batzuei.

Nafarroaren kasuan, bai foru-parlamentariak bai Nafarroako Gobernuak kideak forudunak dira, eta horrek esan nahi du, beren eginkizunak betetzean egindako ustezko delituengatik ikertu edo epaitzen badituzte, ez direla prozedura judizial arruntaren mende jartzen eta auzitegi nagusi batek epaitu behar dituela; kasu honetan, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak.

Zenbait sektore sozial, juridiko eta politikok, bai eta nazioarteko erakundek ere, auzitan jarri dute forudunak egotea, bizio anakroniko bat dela uste baitute, herritarren erakundeekiko konfiantza ahultzen duena. Jazarpen arbitrarioen aurkako bermea izan beharrean, aforamenduak, kasu askotan, babes modura hartu izan dira, kontu-ematea ahuldu eta desafekzio politikoa elikatzen duena.

Erreklamazio horrek garrantzi berezia hartzen du une honetan; izan ere, ustelkeria berriz ere ari da eragiten politikan, eta behartuta gaude erantzun bat ematera, ustelkeriaren aurkako neurriak bultzatzera, kudeaketa publikoaren garbitasuna gure erki-degoaren agenda politiko eta instituzionalaren funtsezko osagaia izan dadin.

Era berean, Konstituzio Auzitegiak xedatu du autonomia-erkidegoek beren goi-kargudunen aforamenduak ken ditzaketela beren estatutu-eskumenen esparruan. Horrenbestez, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Foruaren Hobeagotzearen erreforma bultzatzean, 14. artikuluan aurreikusitako aforamenduak kentzeko.

Iruñean, 2025eko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Miguel Garrido Sola

11-25/MOC-00118. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen aldaketa bultzatzean

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen aldaketa bultzatzean.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea

buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Miguel Garrido Sola jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Eskatzen dugu mozio hau betetzeari buruzko jarraipena Nafarroako Parlamentuko Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean egin dadila.

Zioen azalpena

Zerga-politika, baliabide publikoak biltzeko tresna izateaz gain, balio demokratikoen eta interes orokorraren zerbitzura dagoen tresna ere izan behar da. Hartara, garapen ekonomiko eta soziala osoki, gardentasunez eta legezketasuna errespetatuz laguntzen duten jarduera eta subjektuetarako gorde behar dira zerga-pizgarriak.

Hala jasotzen da Zigor Kodean 2015eko erreformaz gerotik; izan ere, 286 ter artikuluan ezartzen da ezen, kontratu publiko bat lortzearen agintari edo funtzionario publiko bat erosten dutenek edo erosten saiatzen direnek, espetxe-zigorrez eta kontratatzeko eta dirulaguntzak lortzeko debekuaz gain, zerga-pizgarriak jasotzeko aukera ere galduko dutela.

Horri dagokionez, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak, 22. artikuluan, kontratatzeko debekua ezartzen die epai irmo bidez horretara kondenatutako pertsoneri edo erakundeei, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak 13. artikuluan ezartzen du dirulaguntzak eskuratzeko baldintza dela dirulaguntzak lortzeko aukera galtzera kondenatua ez izatea.

Hala ere, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legean, aipamen bakarra hirugarren xedapen gehigarriaren zazpigarren apartatuan egiten da –ekintzaitzari laguntzeko neurriak–, non ezartzen baita ezin izanen dituztela araubide horren onura fiskalak jaso delitu jakin batzuegatik kondenatuta dauden edo kontratatzeko debekua duten pertsonak edo erakundeak.

Beraz, uste dugunez sozietateen gaineko zergan aurreikusitako onura fiskaletara hedatu behar

dela ustelkeria-delituak direla-eta Zigor Kodean ezartzen den debekua (zerga-pizgarriak baliatu ahal izateko debekua, alegia), honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea aldatzea susta dezan, bermatzeko ezen lege horretako hurrengo xedapen hauen kasuan ere ezinezkoa izanen dela Zigor Kodearen arabera epai irmo bidez debekua ezarria duten pertsonak eta entitateek zerga-pizgarriak baliatzea:

– IV. tituluko VII. eta VIII. kapituluetan aurreikusitako salbuespen guztiak.

– IV. tituluko XI. kapituluan aurreikusitako kenkari guztiak.

– IV. tituluko XIII. kapituluan aurreikusitako zerga-oinarriaren murrizketa guztiak.

– VI. tituluko II. kapituluan aurreikusitako hobari guztiak.

– VI. tituluko IV. kapituluan aurreikusitako pizgarriengatiko kenkari guztiak.

– 107. artikuluan aurreikusitako talde fiskalaren zerga-oinarriaren murrizketa guztiak eta 111. artikuluan aurreikusitako talde fiskalen kuota osoaren kenkariak eta hobariak, VI. tituluko II. eta IV. kapituluei buruzkoak.

– Hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako zerga-onura guztiak.

– Hogeita bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako kenkari guztiak.

– Hogeita hirugarren kenkari gehigarrian aurreikusitako kenkari guztiak.

Iruñean, 2025eko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Miguel Garrido Sola

11-25/MOC-00119. Mozioa, zeinaren bidez Lurralde Kohesiorako kontseilaria premiatzen baita izapideak has ditzan Belateko tunela bikoizteko obra-kontratuaren kaltegarritasuna deklaratzeko, eta Etxebizitzako kontseilaria premiatzen baita izapideak has ditzan Erripagañako BF1.1 azpilurzatian babes ofizialeko alokairurako 46 etxebizitza eraikitzeke obra-kontratuaren kaltegarritasuna deklaratzeko

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Lurralde Kohesiorako kontseilaria premiatzen baita izapideak has ditzan Belateko tunela bikoizteko obra-kontratuaren kaltegarritasuna deklaratzeko, eta Etxebizitzako kontseilaria premiatzen baita izapideak has ditzan Erripagañako BF1.1 azpilurzatian babes ofizialeko alokairurako 46 etxebizitza eraikitzeke obra-kontratuaren kaltegarritasuna deklaratzeko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioren eledun Javier García Jiménez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Orainsu ezagutu ditugun Nafarroako Jardunbide Egokien eta Ustelkeriaren aurkako Bulegoaren txostenen balorazioek auzitan jartzen dute Nafarroako Foru Komunitatean obra publikoko kontratuak esleitzeari dagokionez Nafarroako Gobernuak izan duen jokabidea.

Bulegoaren txosten horietan argi eta garbi adierazten da ikertutako kontratuak esleitzeko prozedura ez dela egokia izan. Horren erakusgarri

da Belateko tunela bikoizteko obren ikerketatxostenean aipatzen den ondorioa, zeinaren araberakontratazio-mahaiaren erabakiak eta, beraz, esleipen-proposamena erabat deusezak izanen bailirateke.

Bulegoak orobat uste du administrazio-irregulartasun hutsak baino zerbait gehiago direla Erripagañako BF1.1 azpilurzatian eta Erripagañako BF-2.3 lurzatian (Eguesibar) sustatu beharreko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke kontratuaren bi espedientetan Nasuvinsak izandako ezbetetze nabarmen eta agerikoak. Adierazi behar da, BF-2.3 lurzatiaren kontratuaren kasuan, eta balorazio horiek gorabehera, ezin dela kontratu horren kaltegarritasuna deklaratu, lau urte baino gehiago igaro direlako izapidea abiarazi zenetik.

Kaltegarritasun-errekurtsua salbuespenezko prozedura da Nafarroako administrazio-zuzenbidean, eta aukera ematen dio administrazio publikoari, lau urteko epean, bere administrazio-egintzak (interesdunen aldekoak) administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratzeko, baldin eta egintza horiek interes publikorako kaltegarriak badira.

Prozedura hori ez da errekurtsu tradizional bat, baizik eta Administrazioak abiarazitako egintza judicial bat, eta aurrebaldintza prozesal gisa jarduten du organo judicial batek erabaki dezan egintza deuseztatu behar den ala ez, legezketasuna eta interes orokorra babesteko.

Bulegoak ikertutako eta mozio honen testuan aipatutako obra publikoen kontratuen kasuetan, eta bulegoak egindako balorazioen ondorioz, argi dago administrazio-egintza horiek kalte egin diotela interes publikoari.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak honako hau erabakitzen du:

Erabaki-proposamena:

1. Lurralde Kohesiorako kontseilaria premia-tzea, departamentuaren ordezkari gorena den alde-tik, Belateko tunela bikoizteko obra-kontratuaren kaltegarritasuna deklaratzeko izapideak has ditzan.

2. Etxebizitzako kontseilaria premiatzea, departamentuaren ordezkari gorena den aldetik, Erripagañako BF1.1 azpilurzatian sustatu beharreko alokairuko babes ofizialeko 46 etxebizitza eraikitzeko obra-kontratuaren kaltegarritasuna deklaratzeko izapideak has ditzan.

Iruñean, 2025eko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-25/MOC-00120. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen baita lehenbailehen has dezan Queiles ibarreko udalentsat Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu berri baten obra

EH BILDU NAFARROA, GEROA BAI ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bazarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen baita lehenbailehen has dezan Queiles ibarreko udalentsat Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu berri baten obra.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Eskatzen dugu mozio hau betetzeari buruzko jarraipena Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordean egin dadila.

Zioen azalpena

Hezkuntza Departamentuak urtarrilean iragarri zuen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu berri bat eraikitzea aurreikusten duela Queiles ibarreko udalerrietarako, Murchante, Cascante, Abilitas, Monteagudo, Tulebras eta Barillasko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleak hartzeko. Gaur egun, udalerririk horietako ikastetxe publikoetako seihun ikasle inguru Tuterara joaten dira Benjamín de Tudela eta Valle del Ebro institutuetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ikastera. Baina institutuak txiki eta zaharkituta geratu dira ikasle guztiak hartzeko, eta beharrezkoa da hezkuntza-azpiegitura berri bat eraikitzea, irakaskuntzaren kalitatea eta espazioen behar bezalako kudeaketa bermatzeko, eta, aldi berean, eremuaren lurralde-egituraketa hobetzeko.

Baina, proiektua eraikitzeko, premiazkoa da zehaztea hezkuntza-instalazioak non kokatuko diren behin betikoz, eta dagokion zuzkidura-lurzatia eduki behar da. Hala ere, oraingoz ez da ezer erabaki, eta toki-erakundeek ez dute proposamen adosturik egin horren inguruan. Hezkuntza Departamentuak oraindik ez du erabakirik hartu.

Nabarmendu behar da bertako udal-taldeek denbora daramatela esaten ikastetxe berri bat eraiki beharra dagoela eta proiektua lehenbailehen gauzatzeko proposamen zehatzak egiten. Beraz, premiazkoa da egoera desblokeatzea, proiekturako kokapen egokia lehenbailehen zehaztea eta Queiles ibarreko udalerrietarako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu berriaren obrari atzerapenik gabe ekitea. Lehenbailehen izapideak

arindu eta hezkuntza-erkidegoaren premiei entzun beharra dago.

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du lehenbailehen has dezan Queiles ibarreko herrietarako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu berri baten obra, eta horretarako beharrezkoak diren administrazio-prozedurak susta ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du proiekturako kokapenik egokiena eta bideragarrie-

na hauta dezan, kontuan hartuta irisgarritasuna, mugikortasuna, azpiegituren hornidura, zerbitzu osagarrietarako sarbidea eta lurralde-koheretia.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du izaipideak arindu ditzan, proiektuaren lizitazioa 2026an egiten dela bermatzeko, obrak 2027an esleiri eta has daitezzen.

Iruñean, 2025eko irailaren 18an

Foru parlamentariak: Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio, Eneka Maiz Ulaiar eta Carlos Guzmán Pérez

11-25/MOC-00103. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita berehala eta zorrotz bete dezan Emakumeen eta gizonen arteko ordezkari parekideari eta presentzia orekatuari buruzko abuztuaren 1eko 2/2024 Lege Organikoaren azken xedapenetako seigarrena

MOZIOA ERRETIRATZEA

2025eko irailaren 22an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztutako mozioa erretiratu izana. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen daberehala eta zorrotz bete dezan Emakumeen eta gizonen arteko ordezkari parekideari eta presentzia orekatuari buruzko abuztuaren 1eko

2/2024 Lege Organikoaren azken xedapenetako seigarrena. Mozioa 2025eko ekainaren 20ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**F saila:
GALDERAK**

11-25/PES-00329. Galdera, Nafarroako lurralde historikoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen izendapen ofizialei buruzkoa*ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Nafarroako lurralde historikoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen izendapen ofizialei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Nafarroako Gobernuari eskatzen dio galdera hauei idatziz erantzun diezaien.

Datu Espazialen Azpiegiturari buruzko Zuzentarauak (INSPIRE, Infrastructure for Spatial Information in Europe) Europar Batasuneko datu espazialen sorrera, sarbidea eta erabilera arautzen ditu, eta estatu kideek nahitaez bete beharrekoa

da. 2007an onartu zen, eta informazio geoespazialerako sarbidea errazteko azpiegitura komun bat ezartzea du helburu. INSPIRE Zuzentarauaren 9. kapituluak "Informazio Espazialaren Azpiegitura" aipatzen du berariaz, eta izen geografikoen edo toponimoen estandarizazioari eta ofizialtzeari lotutako alderdiak jorratzen ditu.

INSPIREk zehazten du izen geografiko "ofiziala" dela estatu kide bateko agintaritzak eskudunak ofizialki onartu edo arautu duen leku-izena, herrialde bakoitzeko araudien arabera legez aitortua.

Nafarroan, Euskarari Buruzko 18/1986 Foru Legean, 8. artikulua xedatzen du Foru Komunitateko toponimoek gaztelaniaz eta euskaraz izanen dutela izendapen ofiziala, eta Gobernuak erabakiko dituela legezko izen horiek.

Zein dira Nafarroako lurralde historikoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen izen ofizialak, euskaraz eta gaztelaniaz?

Zein arautan daude jasoak izendapen horiek?

Zein izan dira bete diren izapide administratiboak izen horiek legezko aitortpena izan dezaten?

Komunitate baten izen ofiziala ezartzeko, zein da Administrazioak jarraitu behar duen prozedura administratiboa?

Iruñean, 2025eko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-25/PES-00330. Galdera, Building and Architecture Institute programako ikasleentzako bekei buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Building and Architecture Institute programako ikasleentzako bekei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Building and Architecture Institute-k emanen duen titulu berekiari eta graduondoko lehen urteko matrikula osoa estaltzen duten BAI Programako ikasleentzako bekei dagokienez:

– Zenbat beka ematea aurreikusten da 2025-2026 ikasturtean?

– Zeintzuk dira beka bat jaso ahal izateko bete-kizunak?

– Zer baldintza bete behar dira beka jasotzeko?

Iruñean, 2025eko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00331. Galdera, Building and Architecture Institute-k irakatsi beharreko titulu berekiari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Building and Architecture Institute-k irakatsi beharreko titulu berekiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Building and Architecture Institute-k emanen duen titulu berekia dela-eta:

– Zenbat ikasle dago matrikulatuta galderari honi erantzuteko egunean?

– Noiz hasiko dira eskolak?

– Zer modulu emango dira 2025-2026 ikasturtean?

Iruñean, 2025eko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00332. Galdera, Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019-2030 Plan Zuzentzailea berrikusteari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019-2030 Plan Zuzentzailea berrikusteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Lurralde Kohesiorako kontseilariari, idatziz erantzun dezan.

1.-Zenbat alegazio aurkeztu zaizkio Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko Plan Zuzendariaren berrikuspenari?

2.- Zein izan da berrikuspen hori dela-eta egindako parte-hartze prozesuen emaitza? Zenbat alegazio onartu eta jaso dira behin betiko testuan?

3.- Egaibarko udalek, partikularrek eta gizarte-eragileek aurkeztutako alegazioak aintzat hartzea aurreikusten al duzu?

4.- Berreskuratuko al da Nafarroako Ubidea hornidura-sistemarekin lotze aldera Plan Zuzendariaren jatorrizko testuan aurreikusita zegoen 12.000.000 euroko inbertsioa, ala 1.000.000 euro utziko dira 2030etik aitzina gauzatzeko denboramugarik gabe?

5.- Noiz aurreikusten da onestea Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko Plan Zuzendariaren berrikuspena?

Iruñean, 2025eko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-25/PES-00333. Galdera, Klima-aldaketaren Nafarroako Herritarren Batzarrean parte hartzeagatiko konpentsazio ekonomikoari buruzkoa

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, Klima-aldaketaren Nafarroako Herritarren Batzarrean parte hartzeagatiko konpentsazio ekonomikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babe-

sean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Klima-aldaketaren Herritarren Batzarrari dago-kionez:

Nafarroako Gobernuak berrets al dezake gaur Klima Aldaketaren Batzarrean parte hartzen duten

herritarrei eta talde teknikoari agindutako ordainketak egin zaizkiela?

Erantzuna ezezkoa bada, zein da atzerapenaren arrazoia eta zein da ordainketa horiek egiteko aurreikusitako egutegia?

Iruñean, 2025eko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

11-25/PES-00334. Galdera, Acciona enpresaren eta Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Acciona enpresaren eta Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Acciona enpresako nor egon zen, Nafarroako Gobernuko lehendakariak baieztatu duenaren arabera, Antxon Alonso Egurrola jaunarekin izandako bileretako batean?

Iruñean, 2025eko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00335. Galdera, Alkozko zentroko adingabeei buruzkoa*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Alkozko zentroko adingabeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen dena-

ren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Asiloa eskatzen duten bidaidetik gabeko adingabe atzerritarrei dagokienez:

Zenbat adingabe iritsi dira Alkozko zentrorako galdera honi erantzuten zaion egunera arte?

Hurrengo egunetan gehiago iritsiko direlako ziurtasunik ba al daukazue?

Gehiago iristen baldin badira, non hartuko dute ostatu, Alkozko zentroan ala beste zentroren batean? Beste zentroren bat baldin badago, non dago kokatua?

Nor ari da bere gain hartzen arrazoi horrek sortutako era guztietako kostu ekonomikoak?

Transferitu al du dagoeneko Espainiako Gobernuak dirurik Nafarroara iritsi diren eta/edo iritsiko diren adingabeak mantentzeko?

Iruñean, 2025eko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-25/ACOP-00018. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, Castejonen dagoen Palestinarekiko elkartasunezko horma-irudia bandalizatzeari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 22an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehenengoa:

1. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak irmoki gaitzesten du Castejonen dagoen palestinar herriarekiko elkartasunezko horma-irudia bandalizatu duen gorroto faxista eta sionistako ekintza barbaroa.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak berres-ten ditu palestinar herriarekiko elkartasuna eta Gazako Zerrendan gertatzen ari den genozidioaren arbuioa.

Bigarrena:

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias